

MANUEL LARRAMENDI
KULTUR BAZKUNA

NORTASUN ETA JARDUNERAKO ARAUDI-BILDUMA
(ESTATUTUAK)

Amasa-Villabona, 2013-VI-20



MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNAREN ESTATUTUAK

ELKARTEEN ERREGISTROA
DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA ETA ARAUBIDEA

1. artikulua.- 1992ko azaroaren 5ean eratu eta 1992ko abenduaren 16-an idazpeturik, Bazkunen Erroldan AS/G/03636/92 erregistro zenbakia duen irabazi asmorik gabeko «Manuel Larramendi» Kultur Bazkunaren Estatutuak, elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Elkarteei buruz onarturako ekainaren 22-ko 7/2007 Elkarteen Legean ezarritakoen arabera izan dira gaurkotuak eta aldatuak 2013ko ekainaren 20an, Amasa-Villabonan egindako aparteko Biltzar Nagusian.

Horrenbestez, Manuel Larramendi Kultur Bazkunak honako araubidea izango du: goian aipaturiko 1/2002 eta 7/2007 elkarte edo bazkunei buruzko Legeena, Estatutu hauetan xedatuena -Legearen aurkakoak ez badira, beti ere-, Biltzar Nagusiak onaturiko arautegiena, Zuzendaritza Batzordeak behar bezala harturiko erabakiak -Legearen eta/edo Estatutuen aurkakoak izan ezik- eta Eusko Jaurlaritzak onar ditzan araudi mailako erabakiak; azken hauek osagarri bestetik ez dira izango.

IZAERA ETA HELBURUAK


2. artikulua.- «Manuel Larramendi» Kultur Bazkuna bere helburuez kanpoko interes merkatari edo pribaturi makurtu gabeko elkarte da, eta, beraz, pentsamolde, ideologia, iritzi eta izaera orori zabaldutakoa, bere burua adierazitako eginbeharrei lotu nahi dien orok eskuhar dezakeelarik Kultur Bazkunean.

«Manuel Larramendi» Kultur Bazkuna erabat burujabe eta autonomo izateko jaioa da, eta ez du, beraz, inolako lotura, atxikimendu edo menpekotasunik bilatzen ez erakunde publikoekiko ez beste elkarte, bazkun, konfederakunde edo dena-delako erakunderekiko. Kultur Bazkunak ez du, bere izaerari begira, beste xederik ezer baino lehen bere burua indartu eta sendotzea baino.

«Manuel Larramendi» Kultur Bazkunak ez du jardungo bere bazkideentzat diru-irabazirik eskuratzeko asmoz.



Manuel Larramendi
Agustín



3. artikulua.- «Manuel Larramendi» Kultur Bazkunak bi xede nagusi eta naharo ditu: bata, euskara hizkuntza suspertu, osatu eta hedatzea, bere erabileraren erabateko normalkuntzara heldu asmoz. Bestea, euskal kultura indartu eta arnasberritu eta bere jardunaz zein gainerako kulturekiko harremanaz aberastea. Bi xede nagusi horiek erdiestearren, Manuel Larramendi Kultur Bazkunak bitarteko helburu zehatzago hauek ezarri dizkio bere buruari:

- a) Gizarte mailako komunikazio erabidean eragitea, euskara hutsezko mota orotako hedabideak -idatzizkoak zein ikusentzuneakoak- sortu eta kudeatuz, hala tokiko komunikazioa xede dutenak, nola eskualde, lurralde edo erkidego izaerakoak ere eta edozein komunikazio alor edo atalari dagozkionak.
- b) Euskararen ezagutza suspertzeko, zabaldu eta trinkotzeko irakaskuntza eta trebakuntza jarduerak antolatu, gauzatu eta kudeatzea.
- c) Gazte eta helduen aisialdian euskararen erabilera txerta, susper, ziurta eta zabal dezakeen mota orotariko jarduerak antolatzea.
- d) Euskal Herriaren eta Gipuzkoaren historia eta herrietako tokiko historia euskaraz ikertua eta ezagutzera emana izan dadin jarduera eta ekimenak gauzatu eta antolatzea.
- e) Euskal literaturaren sorkuntza eta literaturaren euskarazko irakurzaletasuna suspertu eta babesteko ekimen eta jarduerak gauzatu eta kudeatzea.
- f) Kontsumo ekoizkinen ekoizpen eta salmentan, lan- eta gizarte-zerbitzuen eskaintza eta kudeaketan, eta, oro har, euskal gizarteko lan erabidean euskararen erabilera suspertu eta zabaltzeko ekimen eta jarduerak antolatzea.
- g) Nazioarteko beste herrialde eta kulturekin elkar ezagutzeko eta laguntzeko ekimen eta jarduerak antolatzea.
- h) Euskal folklore eta etnografia iraunarazi, suspertu eta zabaltzeko ekimenak gauzatzea.
- i) Euskal gizartearen hizkuntza jokabidean eragin nabarmena izanagatik edo jokabide horrentzat eredu garri izan litezkeelako euskara hizpide nagusi izando duten kultur eta gizarte ekintza eta jarduerak gauzatu eta antolatzea.
- j) Euskal toponimoa berreskuratu, iraunarazi eta ezagutzera ematea.

Badu «Manuel Larramendi» Kultur Bazkunak bere-berezko helburu bat ere: Manuel Larramendi euskaltzale eta euskalariak herri baten hizkuntza, izaera eta berezkitasunen alde ahaleginduz utzi zuen kemen, arrazoibide eta senezko lan eta mezuari uztartu eta haren gizabide eta arrazoizko jardun eredu garria jakitera eman eta zabaltzea, hark hasitako ildoari gaugergerako zantzua emanaz, baina, beti ere, garaian-garaiko zirkunstantzia, pentsamolde eta jokabideen

mami eta edukien arteko aldea hausnartuz eta horien argitara egoki iritzitakoari jarraiki.

4. artikulua.- «Manuel Larramendi» Kultur Bazkunaren xedeak jarraiki gihartu beharreko ekintza eta jardura egitaraua nahi bezain irismen eta izaera zabalekoa izango da, hots, ez zaio lotuko alor edo esparru jakin bati ala batzuei. Horregatik, Kultur Bazkunaren xedeak lortzeko egin beharreko jarduerak mugatuko dute Kultur Bazkunaren jardun-eremua.

Hori ordea, Kultur Bazkunak esparru edo alorka antolatuko du bere lan-programa, garbi zehaztu eta azalduz zein den jardura eta ekintza bakoitzak duen helburua edo zein Kultur Bazkunaren helburuekiko atxikimendua. Era berean, jardura edo ekintzak gihartu eta proposatzearekin batera, Kultur Bazkunak bermatu beharko du ez dela bikoiztasunik egongo, behar-beharrezko deritzon izan ezik, ahal duen guztietan beste elkarte, bazkun, enpresa edo erakundeekiko lankidetzan arituko baita.

Nolanahi ere, Bazkunak bere xedeetara iristeko honako hauek egin ahal izango ditu:

- Bere helburuak betetzeko edo horretarako dirubideak eta baliabideak biltzeko era guztietako jardura ekonomikoak gauzatzea.
- Era guztietako ondasunak eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta hitzarmenak egitea.
- Nolanahiko ekintzak burutzea, betiere legeekin eta bere estatutuekin bat etortzekotan.

BAZKUNAREN EGOITZAK

5. Artikulua: Kultur Bazkunak Andoainen (20.140) du bere egoitza nagusia, eta *Dr. Huizi kalea, 15-1 oina* izango da bere helbidea.

Egoitza nagusiaz gain Kultur Bazkunak bazkide biltzar osatu eta ahalmenezkoak ditueneko udalerrietan egoitzak jarri ahal izango ditu, herri bakoitzeko udalerrri-biltzarrak egoki eta beharrezko iritzi eta Biltzar Nagusiak onar dezanean.

Kultur Bazkunaren egoitza nagusia Biltzar Nagusiaren erabakiz alda liteke helbidez, eta herrietako gainerako ordezkaria edo egoitzena Bazkuneko Zuzendaritza Batzordearen erabakiz; bata zein bestea eginez gero, Elkartearen Erregistroari helbide berria jakinaraziko dio Bazkunak.

Une honetan, beste egoitza hauek ditu Kultur Bazkunak:

- ❖ Andoainen (20.140), Arantzibia plazako 4 eta 5-behean.



Manuel Larramendi
Kultur Bazkunaren
Manuel Larramendi

LURRALDE EREMUA

6. artikulua.- Kultur Bazkunaren lurralde eremua Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa izango da.

Kultur Bazkunak, gisa edo izaera bereko elkarte, bazkun edo erakunderik diharduen herri, herrialde edo lur-eremutara ez du bere jarduerarik zabalduko, bertan diharduen Bazkun edo erakundearekin hitzartuta izan ezik edo lur-eremu horretan bazkidetza osatu ahala hark horretara behartzen ez duen bitartean.

IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAUUA

7. artikulua.- Elkartea betirako eratzen da. Aparteko Biltzar Nagusiaren erabaki bidez baino ezingo da desegin, VII. kapituluan esaten den bezala, edo legeetan jasotako arazoiren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoak izan beharko dira, eta pluraltasuna erabat errespetatu beharko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarrizko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten hitzarmenak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

&&&&&&&&&

BIGARREN KAPITULUA

ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

8. artikulua.- «Manuel Larramendi» Kultur Bazkunaren zuzendaritza eta administrazio organoak lau dira:

- Bazkideen Biltzar Nagusia, organo goren gisa.
- Zuzendaritza Batzordea, kide-anitzeko zuzendaritza eta kudeaketa organo orokor eta iraunkorra.
- Udalerri-Biltzarrak, udalerri mailako zuzendaritza organoa.

Xede berariazkoarekin sorturiko aginpide organoak, hots, jarduera batzorde edo biltzarrak.

Horietako bakoitzaren eraketa, egitekoak eta funtzionamendua ondorengo artikuluen arabera arautzen dira:

BAZKIDEEN BILTZAR NAGUSIA

9. artikulua.- Biltzar Nagusia «Manuel Larramendi» Kultur Bazkunaren zuzendaritza eta administrazioarako aginpidezko organu nagusia da. Biltzar



Nagusia bazkide guztiek osatzen dute eta haren bidez adierazten dituzte bazkideek bere nahiak.

Horrenbestez, gai orori buruzko azken hitza eta eskumenik nagusia Kultur Bazkunaren Biltzar Nagusiari dagokio.

10. artikulua.- Biltzar Nagusiak ohiko izaeraz dei litezke, eta apartekoaz hala dagokionean.

Biltzar Nagusia Estatutu hauetan xedatuari jarraiki bildutako bazkide guztiek osatuko dute, eta Kultur Bazkuneko lehendakariaren gidaritzapean egingo da. Biltzar Nagusian bazkide guztiek hitzez eta botua emanaz eskuhartu ahal izango dute.

11. artikulua.- Ohiko Biltzar Nagusia urtean behin bilduko da, ahal izanik urteko lehen hiru hilabeteen barruan. Ohiko Biltzar Nagusietarako deia lehendakariak egingo du gutxienez biltzarrekoa baino hogeita hamar egun aurretik. Bigarren deialdia ere egin ahal izango du, baina, beti ere, lehenengo deialditik bigarrenera gutxienez ordubeteko tartea utzita.

Deia bazkide guztiei jakinaraziko zaie idatziz, biltzarra zein toki, egun eta ordutan egingo den aditzera emanaz, eta Kultur Bazkunaren egoitzetan ere dagokion iragarkia ipiniko da. Biltzarrerako dei-agirian aztergaien zerrenda jakinaraziko zaio baita ere bazkideari, eta ahalbidezko bezain beharrezko den neurrian aztergaietara dagokien dokumentazioa bidaliko zaio.

12. artikulua.- Ohiko Biltzar Nagusiak, urtero-urtero gutxienez ondoko hiru gaiok aztertu eta ebatzi beharko ditu:

- a. Urtean urteko Bazkunaren jarduerako plan orokorra onartzea.
- b. Amaituriko urteko dirukontuak kitatzea eta urte berrirako gastu eta dirusarreraren aurrekontuak aztertu eta onartzea.
- c. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.

13. artikulua.- Biltzar Nagusiaren erabakiak bertaratuen nahiz ordezkaturikoen gehiengo arruntez hartuko dira, baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean, alegia.

Hala ere, bertaratuen edo ordezkaturikoen gehiengo kualifikatua beharko dute, alegia, baiezko botoek baliozko botoen erdia baino gehiago beharko dute izan, elkarte desegiteari, estatutuen aldaketei, ondasunen antolamenduari edo besterentzei eta ordezkaritza-organoko kideen ordainketei buruzko erabakiek.

14. artikulua.- Bazkideek Ohiko Biltzar Nagusiko aztergai-zerrendan jaso gabeko gairik azaldu nahi izan ezker Biltzarrari, galde-erregutarako txandan

Handwritten signature and stamp:
Egoitza Nagusia
Kultur Bazkuntza
MARRATU
BILTZAR

dute aukera hori, gainerako aztergaietan hitzez zein botuz esku hartzeko daukaten eskubidearen kalterik gabe.

15. artikulua.- Biltzar Nagusia, urteko ohikoa izan nahiz apartekoa, lehenengo deialdian balioz eratuta geldituko da botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaratzen baldin bada. Bigarren deialdian, berriz, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

16. artikulua.- Biltzar Nagusia aparteko biltzarrera lehendakariak bere kabuz edo Zuzendaritza Batzordeak erabakitakoan, eta Udallerri Biltzarren batek edo bazkideen %20ak eskatuta deituko da. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dituzte. Dena den, 13. artikuluan aditzera emandako gaiak aztertu eta ebazteko aparteko Biltzar Nagusia egin beharko da.

17. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideren gain utz dezakete beraien ordezkapena Biltzar Nagusietan parte hartzeko. Ordezkapen hori, idatziz egin beharko da, eta Batzarreko idazkariari eman bilera baino ordu bete lehenago. Elkartearen egoitzarik dagoen herrietan bizi ez diren bazkideek ordezkapena beste baten esku uzteko adierazten duen agiria postaz bidal dezakete.

18. artikulua.- Aparteko Biltzar Nagusietarako deialdi eta jardun-prozedura Ohiko Biltzar Nagusietarakoa bera izango da, aztergai-zerrendari dagokionez izan ezik, ezen Aparteko Biltzar Nagusietakoa itxia izango baita.

19. artikulua.- Biltzar Nagusiaren egitekoak honakook dira:

- 1) «Manuel Larramendi» Kultur Bazkunaren ekimena bere alderdi guztietan hausnartu, hezurmamitu, bideratu eta onartzea.
- 2) Kultur Bazkunaren helburuei atxikiturik ekintza eta jarduera egitaraua gorpuztu, gauzatu eta garatzeko litezkeen eta beharrezko diren mota orotako erabakiak hartzea.
- 3) «Manuel Larramendi» Kultur Bazkunaren deuseztapena erabakitzea.
- 4) Urteko jardunaren lan-egitaraua eta dirusarrera eta gastuen aurrekontua eztabaidatu eta onartzea.
- 5) Urteko lan-egitarauari buruzko burutzapen txostena eta dirusarrera eta gastuen gaineko aurrekontu-likidazioa aztertu eta onartzea.
- 6) Beste erakunde, elkarte, bazkun edo enpresa pribatu zein publikorekin eratu beharreko edonolako proiektu, jarduera edo ekintza programa xehetasun eta baldintza guztiei dagokienez onartzea.
- 7) Beste ezein erakunde, elkarte, bazkun edo enpresa pribatu edo publikok eraturako edonolako proiektu, jarduera edo ekintza-egitarautan esku hartzeko erabakia hartzea.



REGISTRO DE ASOCIACIONES
EUSKO JAURLARITZA
ETA JUSTIZIA SAILA
Elkarteen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

- 8) Urtero-urtero Kultur Bazkunaren ondare higiezin eta higikorren enregistro zerrenda eguneratua onartzea.
- 9) Urtero-urtero Kultur Bazkuneko bazkide zerrenda eguneratua onartzea.
- 10) Zuzendaritza Batzordearen jardun eta gestioaren gaineko kontrola eta ardura.
- 11) Udalerrri-Biltzarren jardun eta gestioaren gaineko kontrola eta ardura.
- 12) Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria, lehedakariordea, idazkaria, diruzaina eta mahaikideak hautatzea.
- 13) Zuzendaritza Batzorderako udalerrri biltzarrek edo jarduera batzordeek proposatutako ahaldun-mahaikidea onartzea.
- 14) Zuzendaritza Batzordekideak kargugabetzea.
- 15) Urteko bazkide-sariaren zenbatekoa erabakitzea.
- 16) Kultur Bazkunaren izenean jardungo duten ordezkariak hautatu, izendatu eta kargugabetzea. Zuzendaritza Batzordeak egindako izendapenak onetsi ala gaitzestea.
- 17) Kultur Bazkuneko bazkide berrien onarpena berrestea. Bazkideen kanporaketa erabakitzea.
- 18) Kultur Bazkunaren Estatutuak aldatzea.
- 19) Kultur Bazkunaren barne-egituraketa onartzea, eta hori bera aldatzea.
- 20) Larramendi Bazkunak bere jardunerako egoki iritzitako baltzuak sortu eta kudeatzea, horien nortasun juridikoa gisa batekoa ala bestekoa izanik, eta beste entitateekin batera partekatu beharrekoetan bere partaidetza erabakitzea.
- 21) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietako batzuk uztea.
- 22) Ondasunak xedatu edo besterentzea.
- 23) Ordezkaritza organoetako kideen ordainsariak adostea, hala dagokionean.
- 24) Kultur Bazkunaren Estatutuek eta indarreango legediak bere meneko egiten dituzten gainerako egiteko guztiak.

20. artikulua.- Estatutu hauen arabera Zuzendaritza Batzordeak bere eskumeneko duen edozein egiteko zuzen-zuzenean arduratu ahal izango da Biltzar Nagusia.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea bazkunaren interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa da, Biltzar Nagusiaren xedapen eta arteztarauei jarraiki. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkari-organoa.



Zuzendaritza Batzordea honako hauek osatuko dute:

- Lehendakariak
- Lehendakariordeak
- Idazkariak
- Diruzainak
- Udalergi ahaldunek, zeintzuen proposamena Udalergi Biltzarrek egingo baitute.
- Jarduera mahaikideek, zeintzuen proposamena dagokion jarduera batzordea edo biltzarrak egingo duen.

Gutxienez, urtean sei bilera egin beharko dute, eta, gainera, bazkunaren ekintzak bideratzeko beharrezkoa den hainbat alditan.

22. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara sei aldiz jarraian, edo, aldizka, 12 aldiz ez bada joaten, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen behintzat.

23. artikulua.- Biltzar Nagusiak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak, irizpide guztiz demokratikoen arabera, hots, udalergi ahaldunei edo jarduera mahaikideei dagokienez, Udalergi Biltzarrek edo Jarduera Batzordeek egindako proposamenak aldatu, emendatu edo baztertu ahal izango ditu. Bi urterako izango dira hautatuak, Biltzarrak berriaz ezeztatu ezean, eta behin eta berriro hautatu ahal izango dira.

Beraz, kargu horiek bi urtez behin berrituko dira.

24. artikulua.- Zuzendaritza Batzordekide izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Adinduna izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean den legedian ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b) Estatuetan esaten den eran izendatua izatea.
- c) Bazkuneko bazkide izatea.

25. artikulua.- Zuzendaritza Batzordekide kargua, Biltzar Nagusiak izendatu ostean, onartutakoan edo jabetzerakoan hartuko da.

26. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek honako kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- a) Agintaldia bukatzen denean.
- b) Karguari uko egiten diotenean.
- c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargurako ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d) Biltzar Nagusiak kargugabetzea erabakiz gero, Estatutu hauetako 29. artikuluan jarritakoaren arabera.
- e) Heriotza.

“a)” puntuan agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoa, Zuzendaritza Batzordeko kideek jarduneko egoeran jarraitu behariko dute lehenengo Biltzar Nagusia egin arte. Biltzar horrek aukeratuko ditu kargudun berriak.

b), c), d) eta e) puntuetan agertzen dena baldin bada arrazoa, Zuzendaritza Batzordeak berak hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du eta Biltzar Nagusiak erabakiko du izendapena onetsi ala ezestea. Ezesten badu, dagokion izendapena egingo du.

Batzorde honen osaeran gertatutako aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari.

27. artikulua.- Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen egitekoak:

- a) Ohiko Biltzar Nagusiak onartutako ekintza eta jarduera programak garatu, gauzatu eta burutzea, haren jarraibideen arabera, honako Estatutuetan eta, orohar, indarreango legedian agindutakoari jarraiki; hots, Bazkunaren ohiko kudeaketaz arduratzea.
- b) Ohiko Biltzar Nagusiari urteko lan-egitaraua eta jarduera edo ekintza proiektuak proposatzea eta horietako bakoitzari dagokion aurrekontua aurkeztea; hots, Bazkunak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Kultur Bazkunaren lan-programaren administrazioaz eta berorren baliabide ekonomikoez arduratzea. Kultur Bazkunaren jabetza edo eskuko ondare higikor eta higiezinaren zaintza, administrazio, erabilera eta baliapidetzaz arduratzea.
- d) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko dirukontuen kitapena eta egoera-orria Biltzar Nagusiari aurkeztea, onar ditzan.
- e) Kultur Bazkunarentzat eta beronen jarduera eta ekintzetarako dirubideak bilatu, kudeatu eta bermatzea.
- f) Beste erakunde, elkarte, bazkun edo enpresa pribatu zein publikorekin eratu beharreko proiektu, jarduera eta ekintza programari buruzko proposamenak aurkeztea Biltzar Nagusiari.
- g) Beste ezein erakunde, elkarte, bazkun edo enpresa pribatu zein publikok eratutako proiektu, jarduera edo ekintza-programatan esku hartzeko proposamena Biltzar Nagusiari aurkeztea.
- h) Izaera juridiko orotako erakundeekiko harremanez arduratzea eta harreman horiek gauzatzea, eta Kultur Bazkunaren lan-programako ekintza eta jarduerak aurrera eramateko ordezkariak izendatu eta ahalmentzea.

1) Kultur Bazkunaren jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko den pertsona, zerbitzu profesional edo entpresa nola bestelako baliabide oro kontratatzea.

2) Kultur Bazkunaren xedeetarako beharrezko diren kontratu pribatu zein publiko, hitzarmen, eskritura eta agiri oro sinatzeko erabakia hartzea.

- k) Honako Estatutuei jarraiki, Kultur Bazkunaren jardun egokirako beharrezko gertatzen diren barne-arautegiak gauzatu, behin-behinean onartu, eta behin-betiko onespena eman diezaien Biltzar Nagusiari aurkeztea.
- l) Biltzar Nagusiari urteko bazkide-sarien zenbatekoak proposatzea.
- m) Biltzar Nagusiaren bileretako aztergai-zerrenda onestea, eta Biltzar Nagusi aparteko zein ohikoen deialdiak erabakitzea, lehendakariak bere ahalmenez egin ez baldin badu.
- n) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta dagozkien neurriak hartzea.
- o) Estatutu hauetan jasotzen diren aginduak interpretatzea eta haietako hutsuneak betetzea, betiere elkarteei buruz indarrean diren legeei jarraiki.
- p) Biltzar Nagusiak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak gauzatzea, betiere ez badira bere eskumen eksklusibokoak.
- q) Udalerri-Biltzarren urteko lan-egitarauak eta aurrekontuak, dirukontuen egoera-orri eta kitapenak Kultur Bazkunarenetan txertatu eta Ohiko Biltzar Nagusiari aurkeztea.
- r) Udalerri-Biltzarrek bere jardunean har ditzaten erabakiak onestea eta, beharrezko balitz, bideratu eta gauzatzea.
- s) Udalerri-Biltzarrek hartutako erabakiak Zuzendaritza Batzordeak onetsi ezean, behin-behinekoz indargabeturik uztea Biltzar Nagusiak erabaki arteraino.
- t) Biltzar Nagusiaren erabakiz ahalmen berariazkoak dituzten jarduerabatzordeen urteko lan-egitarauak eta aurrekontuak, dirukontuen egoera-orri eta kitapenak Kultur Bazkunarenetan txertatu eta Ohiko Biltzar Nagusiari aurkeztea.

28. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak, lehendakariak eta, hala badagokio, lehendakariordeak erabakitako bakoitzean egingo ditu bilerak, euren kabuz nahiz batzordekideren batek eskatuta. Bileraren buru lehendakaria izango da, edo, bertan ez balego, lehendakariordea. Biak falta badira, berriz, batzordekiderik zaharrena.



Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak onartu beharko ditu. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du Batzarrean.

REGISTRO DE ADMINISTRACION
ETA JUSTIZIA SAILA
Ekarpenak
DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu. Agiri horiek dagokien liburuan jasoko dira idatziz.

29. artikulua.- Zuzendaritza Batzorderako hautatu eta izendatua izateak ez du inolako dirusaririk jasotzeko eskubiderik egotziko, kargu horien jardunean izango dituen ordezkartzazko gastuena izan ezik, eta beti ere hauek behar hainbat zurituta erregistra litezkeenean.

30. artikulua.- Bateriaezina izango da Zuzendaritza Batzordeko kide izatea alderdi politikoetan ardura, agintezko edo ordezkartzazko kargudun izatearekin.

UDALERRI BILTZARRAK

31. artikulua.- Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren antolakuntzazko lehen helburua herri bakoitzaren burujabetza sozio-kulturala, aiurria eta dinamika eragilea zaintzea izaki, oinarrizko egitura gisa herri bakoitzeko herritarren lan-ahalmen, ahalegin, asmo eta helburuak bildu eta bideratuko dituen Udalerrri Biltzarrak eratuko dira.

Udalerrri Biltzarren xedea, Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren lan-jarduna herri mailan suspertzea eta gauzatzea izango da. Gainera, burutzen duen jarduera edo ekintza hutsik herri jakin batekoa denean eta ez eremu orokor edo erkidekoa, kudeaketa lanak, Zuzendaritza Batzordeak erabakiko duen neurrian, udalerrri horretako biltzarren esku izango dira, Kultur Bazkunak duen administrazio orokor eta elkarrekikoaren kalterik gabe.

32. artikulua.- Udalerrri biltzarra eratzea herri bakoitzeko bazkideen eskuduntza izango da. Horretarako, bazkideak bildu eta Biltzar Nagusiari Udalerrri biltzarra eratzeko proposamena egingo diote. Biltzar Nagusiak biltzarra eratzea erabakiko du, eta haren lehenengo lan-egitaraua eta aurrekontuak onartuko.

33. artikulua.- Udalerrri biltzarrak, gutxienez, sei hilabetez behin ohiko bilkura egin beharko du. Horretaz gain, ahaldunak egoki deritzon guztitan deituko du bilera, edo/eta herriko bazkideen heren batek hala eskatutakoan.

34. artikulua.- Udalerrri biltzarretan herriko bazkide guztiek hizpidez eta hautespidez parte hartu ahal izango dute. Bilerak herriko ahaldunak zuzenduko ditu eta erabakiak bertaraturiko bazkideen gehiengo arruntez hartuko dira. Ez da aktarik jasoko, baina Biltzar Nagusiari, Zuzendaritza Batzordeari edota Bazkuneko beste edozein organo edo batzorderi egin beharreko proposamenak

idatziz helaraziko zaizkio, ahaldunak sinaturik eta bileran esku hartu duten bazkide guztien nortasunaren berri emanez.

35. artikulua.- Kultur Bazkuneko Biltzar Nagusiak udalerrri biltzarren jarduna arautzeko Estatutu hauetan xedatuak erregelamendu batean garatu eta osatu ahal izango ditu.

36. artikulua.- Udalerrri biltzarren goi-ardura biltzarrak berak hautatu eta Biltzar Nagusiari proposatutako ahaldunak izango du. Ahaldunaz gain, udalerrri biltzarrak idazkaria hautatu ahal izango du bazkide kopuruak horrela eskatzen duenean.

UDALERRI BILTZARREN EGITEKOAK

37. artikulua: Udalerrri Biltzarrei ondoko egitekoak dagozkie:

- a) Kultur Bazkunaren helburu eta xedeak udalerrrian gauza daitezen jardura eta ekintza-egitarauak prestatu eta Biltzar Nagusiari aurkeztea.
- b) Zuzendaritza Batzordearen ardurapean Kultur Bazkunaren jardura eta ekintza-egitarau orokorrak eragin, garatu eta gauzatzea udalerrian.
- c) Bere ekimenez udalerrirako antolatutako jardura eta ekintza bereizitu eta bertakoak gauzatu eta kudeatzea.
- d) Herriko gainerako elkarte, erakunde, entpresa eta gizatalde pribatu zein publikoekiko harreman oro izatea.
- e) Urteko lan-egitaraua eta gauzatu ondoren hari buruzko oroitidazkia, urteko dirubideen aurrekontuak eta horien kitapena osatu eta Zuzendaritza Batzordeari aurkeztea.
- f) Kultur Bazkunak bere esku eta ardurapean utzitako baliabide ekonomikoak kudeatzea.
- g) Herriko Udalarekiko harremanaz arduratzea, Zuzendaritza Batzordeak harreman horiek bere esku hartzen ez dituenean.
- h) Biltzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak horien esku jar dezan bestelako eskumenik.

JARDUERA BATZORDEAK

38. artikulua.- Manuel Larramendi Kultur Bazkunak bere jarduna bideratu eta lan-egitaraua gauzatzeko garaian Jarduera Batzordeak sortu ahal izango ditu, berariazko eskumenez Biltzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen agindupean eta kontrolpean jardungo dutenak.

Jarduera Batzordeen xedea izaera berezi eta kudeaketa eta administrazio berariazkoa behar duten ekimenak kudeatu eta administratzea izango da, eta



Biltzar Nagusiak horien egitekoak eta eskumenak zehatz-mehatz erabakiko ditu, baita horien jarduna eta administrazioa egoki finkatu ere arautegi bidez.

Jarduera Batzordeak sortzeko irizpide nagusia, jarduera edo ekintzak berak duen nortasun, antolakuntza edo erabide konplexutasuna izango da, eta horren kudeaketa eta administrazio egokia Larramendi Bazkunarenean txertaturik joan arren burubide eta eginbide berariazkoa eta berezia izatea.

Larramendi Bazkunaren jardunean ondasun jakin bat -demagun, higiezina-bazkide jakin batzuen esku gozamererako utz dezanean haien diru-sariaren truke -bazkide ondasunkideak-, ondasun hori eta horrek xede izan duen jarduera edo ekimena, jarduera batzorde baten ardurapean geldituko da, eta jarduera batzorde hori ekimen edo jarduera horretara bilduriko bazkide ondasunkide guztiek osatuko dute.

39. artikulua.- Jarduera batzordeek kudeaketa eta administrazio berariazkoa izango dute, baina Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren kudeaketa eta administrazio orokorraren baitan txertatu beharrekoa.

40. artikulua.- Jarduera batzordeetako buru batzordeburua edo biltzarburua izango da, eta horrek jarduera mahaikide gisa parte hartuko du Bazkunaren Zuzendaritza Batzordean.

41. artikulua.- Era berean, jarduera batzordeak, Biltzar Nagusiak bere jardunerako onartzen duen arautegian hala xedatuko balu, idazkaria izateko aukera ere izango luke, zeinaren eginkizuna izano baita Bazkunarekiko kudeaketa eta administrazio elkarrekikoa gauzatzea.

LAGUN BAKARREKO ORGANOAK

LEHENDAKARIA

42. artikulua.- Kultur Bazkunaren lehendakariari izaera oroko erakundeekiko harremanetan goi-mailako ordezkari ofiziala dagokio. Horretaz gain, ondoko egitekook:

- 1) Biltzar Nagusirako eta Zuzendaritza Batzorderako deiak egin eta bileretan buru izatea, bilerak bukatutzat ematea; bileretan sortzen diren eztabaidak zuzentzea; eta boto-berdinketa gertatuz gero, boto ebazleaz erabakitzea.
- 2) Kultur Bazkunaren Estatutuak bete eta betaraztea.
- 3) Kultur Bazkunaren xedeei atxikitutako lan-programa gauza dadin eragile izatea. Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea.

Arteaga



Manuel Larramendi



- 4) Sor daitezkeen premiazko arazoak konpontzea, eta Zuzendaritza Batzordeari lehenengo bilkuran horien berri ematea.
- 5) Biltzar Nagusi eta Zuzendaritza Batzordeetako aktei oneritzia eman eta hartutako erabakiak betaraztea.
- 6) Biltzar Nagusiak edo/eta Zuzendaritza Batzordeak ahalmenduta, kontratu, hitzarmen, eskritura, adierazpen eta bestelako agiri oro sinatzea.
- 7) Kultur Bazkunaren lan-egitaraua burutu eta gauzatzeko beharrezko diren eginbide administratibo eta legezkoak, eta balioz erabakitako diru-kobraketa eta gastuak agintzea, eta horietan Kultur Bazkuna ordezkatzuz jardutea.
- 8) Biltzar Nagusiak berriazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak gauzatzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

LEHENDAKARIORDEA


43. artikulua.- Lehendakariordeari lehendakaria falta denean edo egitekoren bat bete ezin duenean haren lekua eta egitekoa eskumenean hartzea dagokio.

Lehendakariak egoki deritzon bere egitekoren bat ala batzuk iraunkorki eskuordetu ahal izango ditu lehendakariordearengan.

IDAZKARIA

44. artikulua.- Idazkariari ondoko egitekoak dagozkie:

- 1) Biltzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak egiten dituzten bileretan idazkari gisa jardutea eta bilera horietako aktak idaztea.
- 2) Bazkunean sartzeko eskabideak hartu eta bideratzea, eta Bazkuna utzi nahi duten bazkideen eskabidea bideratzea ere.
- 3) Bazkideen erregistro-liburu, Biltzar Nagusietako akta-liburu eta Zuzendaritza Batzordeetako akta-liburu eta bazkide ondasunkideen erregistro liburuen ardura eta zaintza.
- 4) Kultur Bazkunaren jarduneko eginbide administratiboetarako beharrezko diren bitarteko eta baliabide guztiak proposatu, eratu eta horiez arduratzea.
- 5) Biltzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak lehendakariarekin batera egikaritu, betarazi edo gauzatzea.
- 6) Kultur Bazkunari aurkeztutako idatzi, eskaera, erreklamazio, proiektu eta agiriak oro har Zuzendaritza Batzordera, Biltzar Nagusira, Udalerrri-Biltzarretara edo dagokionari bideratu eta helaraztea.



- 7) Kultur Bazkuneko Biltzar Nagusi eta Zuzendaritza Batzordearen erabakiak jakinarazi eta iragartzea.
- 8) Biltzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak bere ardura eta erantzukizunpean utz ditzatenak.
- 9) Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko erabakiak bete daitezzen arduratuko da, Erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkarteko liburuen eta agirien edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordearen hautaketari eta elkartearen egoitza aldatzeari buruzko beharrezko jakinerazpenak dagozkion agintaritzarengana bideratuz.



DIRUZAINA

45. artikulua.- Kultur Bazkuneko diruzainari ondoko egitekook dagozkio:

- 1) Kultur Bazkunaren ondare ekonomikoaren gestio eta zaintzaz arduratzea, uneoro ondare horren egoeraren berri emateko moduan eta neurrian kontrolatuko duelarik.
- 2) Kultur Bazkunaren dirukontuen liburuaz arduratzea, dirukontuetatik egindako diru-irteera eta sarrera guztien gaineko erantzukizuna izanik, horiek egiaztatu eta azaldu beharko dituelarik.
- 3) Urtean-urteko lan-egitarauari dagokion aurrekontu osatua eta aurreko urteko aurrekontuari dagokion kitapena, behar-bezala zurituta, Bazkunaren Biltzar Nagusiari aurkeztea.
- 4) Lehendakariarekin batera Kultur Bazkunak egin beharreko eta balioz onarturiko ordainketa guztiak agintzea, horretarako egoki diren zernahi motatako agiriak sinatuz.
- 5) Kultur Bazkuna dirubideez hornitzeko egiturak proposatu, kudeatu eta zaintzea. Bazkideek ordaindu beharreko sarien kobraketa agintzea lehendakariarekin batera.
- 6) Kultur Bazkunaren ondareari buruzko erregistro-liburuaz arduratzea, bertan Kultur Bazkunaren jabetzako ondare higiezin eta higikorra erregistratuz.
- 7) Udalerrri biltzarrek eta jarduera batzordeak berariaz egin dezaten kudeaketa ekonomikoa ikuskatu eta zaintzea.
- 8) Biltzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordearen erabakiz bere ardura eta erantzukizunpean utzitakoak.

HERRIETAKO AHALDUNAK

46. artikulua.- Herrietako ahaldunei ondoko eginkizunok dagozkie:

- 1) Kultur Bazkunaren lan-egitaraua udalerriko eremuan buru dadin eragile eta arduradun nagusi izatea. Horrenbestez, udalerrri mailan ahaldunari



dagokio Kultur Bazkunaren lan-egitarauaren gaineko azken erantzukizuna, berau garatu eta gauzatu ahal izateko kudeaketa, bitartekaritza eta gidaritza lanak egitea eta jarduera edo/eta ekintza bakoitzaren gastua, hala dagokionean, egin eta zuritzea.

- 2) Kultur Bazkunaren lan-egitarau orokorraz gain herriaren bereizitasun, behar eta espezifikotasunen arabera Kultur Bazkunaren xedeei lotutako lan-egitaraua itxuratu eta hezurmamitzea, Kultur Bazkunaren Zuzendaritza Batzordeari hori burutzeko proposamena helaraziz.
- 3) Herriko Udalaren aurrean Udaleri Biltzarraren eta, dagokionean, Kultur Bazkunaren ordezkari izatea.
- 4) Udaleri Biltzarrean azaldutako eskaera, erreklamazio eta mota orotako gaiak, dagokionean, Zuzendaritza Batzordean eta Biltzar Nagusian aurkeztea.
- 5) Kultur Bazkunak udalerrian duen ondarearen eta Zuzendaritza Batzordeak bere ardurapean utzitako dirubilduen gaineko erantzukizuna.
- 6) Udaleri Biltzarrak, Zuzendaritza Batzordeak edo Biltzar Nagusiak bere erantzukizupean utz ditzatenak.

JARDUERA MAHAIKIDEAK

47. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izanik, batzorde horren egitekoak burutzea dagokie jarduera mahaikide diren batzordeburu edo biltzarburuei, eta, gainera, Biltzar Nagusiak jarduera batzordea sortzeko erabakitzean edota arautegiaren bidez berariaz egotz diezazkien egiteko guztiak.

OHOREZKO LEHENDAKARIA

48. artikulua.- Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Biltzar Nagusiak, euskal kulturaren eta euskalgintzaren baitan, alor batean zein bestean, suspertzaile, ekintzaile edo eragile gisa ahalegin aparta egindakoen artean, horren guztiaren ordaineko eskerron eta sari gisa, ohorezko lehendakaria izendatu ahal izango du, hautatuak nahikoa merezimendu duela deritzon.

Oso bereziki ondoko merezimenduak hartuko ditu kontutan:

- a) Euskararen corpusa gorde, osatu, arautu, aberastu eta ikertzen egindako lan bikainak.
- b) Euskararen statusa eta erabilera normaltzen, euskara gizarte jardunaren alor guztietara liskarbideetatik urrun eta modu eraginkorrean zabaltzen egindako lan eta ahalegin oparoengatik, hala ekintzaile edo eragile gisa, nola teorizatzaile eta ikerlari gisa.





HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Eusko Jaurlaritzaren Erregistroa
DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

- c) Inguruabarrrik zailenetan nor bere biritza euskaraz egin, osatu eta aberasten egindako ahaleginarengatik.
- d) Euskal kultura tradizionala bere alderdi guztietan berreskuratu, suspertu, ezagutzera eman eta sustatzearren egindako lanarengatik.
- e) Euskal kulturgintza garaikidea suspertu, ezagutzera eman, aberastu eta beste kulturengandiko ekarpenez osatzearren egindako saio apartengatik.

Ohorezko lehendakari izendapena oso aparteko izaerakotzat jo behar da, eta, beraz, goian adieraziriko merezimenduak nabarmen biltzen dituzten pertsonak baino ez dira sarituko izendapen horrekin. Zuzendaritza Batzordea izango da izendapen proposamena jasoko diona Biltzar Nagusiari, zehatz-mehatz idatziriko agiri baten bidez izendapenaren arrazoiak eta saritu asmo den lagunaren merezimenduak azaldu eta zurituz.

Biltzar Nagusira bertaraturiko bazkideen arteko bi herenek eman beharko dute aldeko botua proposamena onartua izan dadin.

49. artikulua.- Ohorezko lehendakaria Kultur Bazkunaren ordezkariarik gorena izango da aginpidezko izaerarik ez duten ospakizun eta ekitaldi guztietan, ohorezko lehendakariak ez baitauka agintezko eskumenik. Aginpidezko izaera duten ospakizun eta ekintzetan karguari dagokion lehentasunez jardungo du.

50. artikulua.- Ohorezko lehendakari izendapenak hilarteko izaera izango du eta saritu bakarrekoa izango da, hots, aldi berean ez da izango ohorezko lehendakari bakar bat baino.

Sarituari izendapen erabakiaren egiaztatzea eta urrezko paparrikurra eskuratuko zaizkio. Aipatu egiaztatzea eskuratzeko ekitaldi berezia antolatuko du Kultur Bazkunak.

51. artikulua.- Ohorezko lehendakari izendapenak bat dakarrenez Kultur Bazkuneko bazkide bihurtzea saritua aurrez bazkide ez denean, espresuki aitortzen zaizkio hari bazkide guztiei dagozkien eskubide eta betebeharrak, urteko kuota ordaintzearena izan ezik, ohorezko lehendakari izendapenak bazkidea urteko kuota ordaintzetik salbuetsiko baitu.

52. artikulua.- Kultur Bazkunaren Biltzar Nagusiak ohorezko lehendakari izendapena indargabetu ahal izango du, behin iritziz gero izendatuak izendapena eragin zuten merezimendu eta arrazoiak narriatu eta galarazi dituen jokabidea izan duela eta behar-beharrezko gertatzen dela erabaki hori hartzea.

&&&&&&&&&

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARPEN BIDEAK, BALDINTZAK ETA MAILAK

53. artikulua.- Bazkide izan nahi eta honako baldintza hauek betetzen dituzten guztiek izan daitezke Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko bazkide:

- Pertsona fisikoak edo era guztietako pertsona juridikoak izan daitezke, publikoak zein pribatuak. Pertsona fisikoen kasuan, adindunak izan beharko dute, edota adingabe emantzipatuak; hamalau urtetik gorako adingabe emantzipatugabeak izanez gero, beren gaitasuna ordeztu behar duten pertsonen baimen idatzia beharko dute.
- Bazkideak pertsona fisikoak badira, beti bete beharrekoa da honakoa: adinduna izatea, edo adingabe emantzipatua, eta eskubidea gauzatzeko inolako lege-baldintzarik ez izatea.
- Hamalau urtetik gorako adingabe emantzipatugabeak bazkide izan ahalko dira beren gaitasuna ordezkatu behar duten pertsonen baimen idatziarekin. Bazkide horiek ez dute zuzendaritza organoetan parte hartuko, adindunak diren arte.
- Bazkideak pertsona juridikoak badira, beren organo eskudunaren berariazko erabakia beharko dute; erakunde izaera dutenek, aldiz, beren organo zuzentzailearena beharko dute. Bazkuna osatzeko nahia adierazi beharko da horietan, bai eta beren izenean jardungo duten ordezkari ahaldunen izena ere.

54. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea eta lehendakariari zuzenduko zaio. Lehendakariak horren berri Zuzendaritza Batzordeari emango dio, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean behin-behingo izaeraz onartu ala ez. Behin betiko erabakia, eskabidea egin ondoren deitzen den hurrengo Biltzar Nagusiak hartuko du, haren esku utziko baitu Zuzendaritza Batzordeak.

Nolanahi ere, bazkidetza ez da lortuko harik eta bazkidegaiak Biltzar Nagusiak onarturkoen artetik dagokion lehenengo urteko bazkidetze-saria ordaindu arte.

55. artikulua.- Manuel Larramendi Kultur Bazkunak honako bazkide mota edo zertasunak izango ditu:

- Bazkide osoak
- Bazkide ondasunkideak
- Bazkide aitzindari eta ohorezkoak
- Bazkide babesleak



56. artikulua.- Bazkide oso izango dira behin Biltzar Nagusiak onartu eta lehenengo urteko bazkide-saria ordainduz gero bazkidearen eskubide eta betebeharrak guztiez jardungo dutenak Bazkunaren baitan.

Huts-hutsik ezingo dute jardun Biltzar Nagusiak bazkide ondasunkideentzat utzitako ekimen eta ondasunekin, horiek haien erabilera eta gozamenerako izango baitira soilik Biltzar Nagusiak arautu legez.

57. artikulua.- Bazkide ondasunkide izango dira bazkide oso izanik, Kultur Bazkunaren baitan jarduera edo ekimen jakin bat gauzatu eta burutzeko diru-ekarpen berezia egin izanagatik, jarduera eta ondasun horien gaineko gozamen eskubidea soilik beretzat hartzen dutenak, beti ere Estatutu hauek eta Biltzar Nagusiak onarturiko arautegiaren arabera.

Bazkide ondasunkideak jarduera batzorde edo biltzarretan elkartuko ditu Bazkunak bere jarduna buru dezaten, eta onarturiko arautegiak ezarriko du ondasunkide izaera noiz artekoa izango duen bazkideak, bizi bitartekoa izango den ala epe jakin batekoa, besterengarria izango den ala ez eta zein baldintzetan, ekarritako diru edo ondasunak itzulgarriak izango diren ala ez, etab.

Bazkide ondasunkidea bazkide osoarengandik bereizten duen ezaugarri bakarra jarduera edo ondasun jakin baten gainean hartzen duen gozameneko gauza-eskubidea da, ez besterik.

58. artikulua.- Bazkide aitzindari izendatu ahal izango ditu Biltzar Nagusiak Kultur Bazkunaren sorreran parte hartu zuten bazkideak, baita lehenengo bost urteetan bazkide zirenak ere, eta izendapen horren zioa Kultur Bazkunaren baitan egindako ibilbidea izango da. Sorreran edo lehenengo bost urteetan esku hartu ez baina geroztik bazkide diren lagunak ohorezko bazkide izendatu ahal izango ditu Biltzar Nagusiak, zio berdinegatik.

Biak ohorezko izendapenak izanik, hautagaiak gutxienez hamabost urteko antzintasuna beharko du izan Bazkunean, eta izendapen horren aintzatespen gisa Kultur Bazkunaren paparikurra edo idunekoa jasoko du, eta izendapenaren agiria.

Bazkide aitzindari edo ohorezko izendaturikoen urteko bazkide-saria ordaintzetik salbuetsirik geldituko dira, kontrakorik adierazten ez badute behintzat.

59. artikulua.- Bazkide babesle izango dira Kultur Bazkunaren jarduna diruz edo baliabidez laguntzeko xedez elkarteratzen direnak. Ez dute, bada, dohaintza-emaile gisa baizik esku hartuko; Biltzar Nagusian hizpidez parte hartu ahal izango dute baina ez dute boto eskubiderik izango, eta Zuzendaritza Batzordean eta gainerako organoetan parte hartzeko eskubiderik ere ez dute izango.

Kultur Bazkuna
Egoitza Nagusia
M. Chaves

Bazkide babesleak ez dira idazpetuko gainerako bazkideekin batera Bazkideen Erregistro Liburuan, bazkide babesleen izena eramango duen beste liburu batean baizik.

Bazkide babesleek "Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren bazkide babesle" dioen goiburua erabiltzeko eskubidea dute.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

60. artikulua.- Bazkide guztiek, bazkide babesleek izan ezik, honako eskubide hauek dituzte:

- 1) Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jarduteak inpugnatzea, aurkatutako erabakiaren edukia ezagutu edo ezaqutzeko aukera izan duen egunetik hasi eta 40 egun naturaleko epean.
- 2) Bazkunaren gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaerari, elkartearen kontu-egoerari eta haren jardueri buruzko informazioa jasotzea.
- 3) Bazkuneko beste bazkideen nortasuna, diru-sarrera eta gastu-kontuen egoera, eta elkartearen ekintzen garapenaren berri uneoro jakitea.
- 4) Biltzar nagusietan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
- 5) Bazkuneko Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organonetan parte hartzea eta organo horietarako hautagai nahiz hautesle izatekoa.
- 6) Indarrean diren legeetan zehaztutako bazkide-zerrendan agertzea, eta elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- 7) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- 8) Bazkunaren talde-ekintzetan parte hartzea, eta bazkideen erabilerako gauzak erabiltzea (liburutegiak, elkartearen egoitza, eta abar), hutsik bazkide ondasunkideei dagozkienak izan ezik, eta beti ere Biltzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak, kasuan kasu, erabakitako moduan.
- 9) Zigortze-neurriak hartu baino lehen, bazkideak idatziz adierazitakoa kontutan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiak buruz azalpenak jasotzea. Neurri horiek hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean oinarri daitezke soilik.
- 10) Bazkide ondasunkideei dagokienez, Biltzar Nagusiak arautegiz hala erabaki duenean Bazkunaren baitan egindako diru edo ondasun-ekarpena zuzenean edo besterenganaketa egin ondoren berreskuratzea, edota gozamen eskubidea bazkide oso den bere oinordekoren baten esku

uztea. Urteko bazkide-saria ez da inoiz ondasunkideen aparteko diru edo ondasun-ekarpentzat hartuko.

61. artikulua.- Bazkideen betebeharrak honako hauek dira:

- a) Bazkunaren helburuak gauzatzeko lankidetzak aktibo ematea
- b) Biltzar Nagusiak ezarritako bazkide-sariak, derramak eta bestelako ekarpenak ordaintzea, gastuak ordaintzeko.
- c) Estatutu hauek, Bazkunak indarrean jar ditzan jardunerako arautegiak eta elkartearen zuzendaritza-organoei balioz hartutako erabakiak bete eta horiei men egitea.



ZIGOR-ARAUAK

62. artikulua.- Estatutuak edo Biltzar Nagusiak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriz hausteagatik Zuzendaritza Batzordeak bazkideak zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera bitarte eskubideak kentzetik elkartetik betirako egozterainokoa izan daiteke zigorra, betiere 64. artikulutik eta 70.era bitartekoetan jasotakoaren arabera.

Ondorio horietarako, lehendakariak zigorgarri izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egiteko erabakia hartu ahal izango du. Ikerketa horiek Idazkaritzak eramango ditu aurrera, eta Zuzendaritza Batzordeari neurri egokiak hartzeko proposatuko dio. Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, eta zigorra ezarri aurretik interesatuak adierazitakoa kontutan hartu beharko da.

Erabaki horren arrazoiak emango dira beti, eta haren aurkako helegitea jarri ahal izango da Biltzar Nagusiaren aurrean, 60.1 artikuluan zehaztutako ekintzen kalterik gabe.

BAZKIDETZA GALTZEA

63. artikulua.- Bazkidetza honako kasu hauetan galduko da:

1. Heriotza (edo desegitea, pertsona juridikoen kasuan).
2. Bazkideak nahita Bazkuna uztea.
3. Biltzar Nagusiak erabakitako zigorra dela eta, honako kasu hauetan: Estatutuotatik edo Biltzar Nagusiak onarturiko arautegietatik eratorritako betebeharrak eta Biltzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak balioz hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki haustea.

[Handwritten signature]
[Handwritten signature]
[Handwritten signature]

Egoitza Nagusia

Kultur
ERREKREAZIO
MARAVENDI

64. artikulua.- Bazkideren bat 63.3. artikuluan zehaztutako kasuetako edozeinetan bada, lehendakariak agin diezaioke idazkariari, gertaeren berri izatearren, aurretiazko eginbide batzuk egin ditzan. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak ekintza bertan behera uztea edota zigor-espeditari hasiera ematea erabaki dezake.

65. artikulua.- 63.3. artikuluan zehaztutako kasuetako edozeinengatik zigor-espeditatea hasten bada, idazkariak, egintzak egiaztatu ondoren, Zuzendaritza Batzordeko lehenengo bilkurara eramango du kasua, eta bertan hartuko da behin-behineko erabaki egokia. Horretarako batzordekideetako %50-ko quoruma behar izango da.

Elkartetik kanporatzeko behin betiko erabakia Biltzar Nagusiak hartuko du, baina hartu aurretik interesatuari idatziz jakinaraziko zaio kanporatzeko proposamena, aukera izan dezan, egoki iritziz gero, bere jokabidearen aldeko arrazoiak azaltzeko hitzez zein idatziz Biltzar Nagusiaren aurrean. Hala eta guztiz ere Biltzar Nagusiak bazkidea kanporatzea erabakiko balu, horrek hogeita hamar eguneko epea izango luke helegitea aurkezteko, eta helegite hori egiten den hurrengo Biltzar Nagusian erabakiko da, baina erabaki bitartean bazkideak bere bazkide-eskubideak etenik izango ditu eta ezin izango du Kultur Bazkunaren jardunean parte hartu. Bazterturikoa Zuzendaritza Batzordeko kide baldin bada, kargu hori utzi egin beharko du helegitea erabaki bitartean.

66. artikulua.- Kanporatze-erabakia -betiere arrazoiak emanda-dagokionari jakinaraziko zaio eta horrek, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du; bere ustez, erabakia legearen edo estatutuen aurkako dela irizten baldin badu.

67. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan -berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako- bete gabe dituen betebeharrak betetzeko eskatuko zaio, hala badagokio.

68. artikulua.- Bazkide ondasunkideak kanporatzea eska dezanean, dagokion jardura batzorde edo biltzarrak Zuzendaritza Batzordeari proposamena egingo dio bazkideak egindako diru edo ondasun-ekarpena itzulia izan dakion, jardura edo ekimen hori kudeatu eta antolatzeko Biltzar Nagusiak onarturiko arautegiak agindutakoaren arabera.

69. artikulua.- Biltzar Nagusiak bazkide ondasunkidea Bazkunetik kanporatuz zigor dezanean, dagokion jardura batzorde edo biltzarrak Biltzar Nagusiari proposamena egin beharko dio bazkideak egindako diru edo ondasun-ekarpena itzulia izan dakion, jardura edo ekimen hori kudeatu eta antolatzeko Biltzar Nagusiak onarturiko arautegiak agindutakoaren arabera, eta, beti ere, ezarri zaion zigorraren zioak lotura zuzenik ez balu bazkide gisa izan duen gozamen eskubidea era batera edo bestera kaltetu edo narriatu izanarekin.

70. artikulua.- Bazkide ondasunkideari Bazkuna utz dezanean edo kanporatua izan dadinean, ondasunkide gisa berariaz gozatu duen ekimen edo jarduera finantzatzeko egindako ondasun edo diru-ekarpenaren itzulera egingo zaio, baldin eta itzulera horrek kalterik sortzen ez badu beste bazkide edo hirugarrenen batengan. Kalterik sortuko balitz ez litzaioke itzulketarik egingo, arautegi berariazkoak epe erdi edo luzera besterik erabaki ezean.

Bazkide ondasunkideari, ondasunkide gisa berariaz dagokion jarduera edo ekimenean, hura sortu, gauzatu edo handitzeko egindako ondasun edo diru-ekarpenez kanpo, ekimena jardunean iraunarazteko egin dituen diru-ordainketak -ohiko funtzionamendu edo iraunarazpenari dagozkionak, alegia- ez dira inolaz ere itzuliko.

&&&&&&&&&

LAUGARREN KAPITULUA

ONDARE SOZIALA ETA AURREKONTU-ARAUAK

71. artikulua.- Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren ondarea 111.372,16 €-koa da, 2008ko abenduaren 31ko dataz egiaztaturiko ondarearen egoerari buruzko agiriaren arabera.

72. artikulua.- Bazkunak, bere ekintzak aurrera eramateko, honako diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:

- Biltzar Nagusiak ezarritako bazkidetza-sariak.
- Bere jabetzako Erroitz, baltzu mugatuak eman diezazkion irabaziak.
- Bazkunak dauzkan ondasun eta eskubideetatik ateratzen dituen ekoizpenak. Baita legez jaso ditzakeen diru-laguntzak, ondareak eta dohaintzak ere.
- Estatutuen helburuak kontutan harturik, Biltzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak erabakitako ekintza bidezkoek dakartzaten irabaziak, betiere estatutu hauetan jasotako helburuen esparruan.

Elkarte- eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren hogeita hamaikan itxiko da.

Bazkunak, jarduera ekonomikoak (zerbitzuak ematea barne) gauzatu, lortzen dituen irabaziak haren helburuak betetzeko baino ez dira erabili behar. Inola ere ezingo dira elkartekideen artean banatu, ez eta haien ezkontideekin edota haiekin antzeko afektibitate-erlazioan bizi diren pertsonekin ere, ez eta haien senideekin ere. Ezingo zaizkio, halaber, mozkina irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

&&&&&&&&&

BOSTGARREN KAPITULUA

BAZKUNAREN IDAZPETZE ETA KONTROL LIBURUAK

73. artikulua.- Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, bere jardunaren kontrol egokirako gutxienez honako idazpetze-liburuak osatu eta iraunarazi beharko ditu:

- a) Bazkideen Erregistro-Liburua, non kideei dagozkien datu pertsonalak eta Bazkunarekikoak jasoko diren.
- b) Biltzar Nagusietako Akten Liburuak.
- c) Zuzendaritza Batzordeetako Akten Liburuak.
- d) Dirukontuen Liburua, non urtealdi bakoitzeko dirukontu guztiak jasoko diren.
- e) Jarduera-batzorde edo biltzarretan osatu eta bertara biltzen diren bazkide ondasunkideen liburua, batzorde edo biltzarreko bat, zeinean azaldu beharko den bazkide bakoitzak egindako ondasun edo diru-ekarpena eta horrek eman dion gozamen-eskubidearen ehuneko hainbestekoa, ohiko gainerako datuekin eta batzorde edo biltzar horretarako arautegiak onar ditzan gainerakoekin batera.
- f) Ondarearen Erregistro-Liburua, non Kultur Bazkunaren jabetzako ondare higikor eta higiezinaren azalpena eta balorazioa jasoko baita.

74. artikulua.- Idazpen edo erregistro liburu guztiak uneoro bazkideen menara egongo dira edozein kontsulta egiteko Bazkunaren egoitzetan bertan.

Idazpen edo erregistro liburuak Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroko ikuskatzaileen ikuskapenera jarriko ditu Kultur Bazkunak hala eska diezaiotenean.

&&&&&&&&&

SEIGARREN KAPITULUA

ESTATUTUEN ALDAKETA

75. artikulua.- Estatutuen aldaketa bazkideen Biltzar Nagusian erabaki behar da, bai bere ekimenez, bai bazkideen %25ak hala eskatuta; Biltzar Nagusiak xede horrekin deitua izan behar du. Dena den, bi kasuetan Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza



Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta Batzordeak berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

76. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, lehendakariak hurrengo Zuzendaritza Batzordearen aztergai-zerrendan sartuko du. Batzorde horrek egitasmoa onartu, edo, berriz ere, lantaldeari itzuliko dio, atzera ere aztertzeko.

Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak edo lehendakariak Biltzar Nagusia deituko du, aztergai-zerrendan Estatutu aldaketa sartuz.

77. artikulua.- Biltzarrerako deiarekin batera, estatutuen aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa-proposamenen hori Biltzar Nagusiari emango zaio, betiere batzarra egin baino zortzi egun lehenago Idazkaritzan jaso badira.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke. Idatziz egin beharko dira, eta beste testu-aukera bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Biltzar Nagusiak estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistroan sartzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

&&&&&&&&&

ZAZPIGARREN KAPITULUA

KULTUR BAZKUNA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

78. artikulua.- Kultur Bazkuna desegingo da:

- 1) Kultur Bazkunak bere jardupidean erabat porrot egitean edo/eta, edozein arrazoiengatik, bere xedeetara aurrera jo ezina gertatzean.
- 2) Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren xedeak gauzatu eta betetzearren, martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak eta 2007ko ekainaren 22ko 7/2007 Bazkunei buruzko Legeak aurrikusitakotik kanpo beste edozein elkarkuntza edo/eta antolakuntzazko egitura edo eraentzari estatutu hauek xedatuei baino egokiago eta bidezkoago iriztean.
- 3) Bazkideek nahi dutelako. Nahi hori horretarako elkarturiko Biltzar Nagusian azaldu beharko da, eta bertan daudenen gehiengo kualifikatuaren botoak jaso beharko ditu.
- 4) Kode Zibileko 39. artikuluan azaltzen diren arrazoiengatik.
- 5) Epai judizial bidez.

[Handwritten signature]

[Handwritten signature]

Kultur Bazkuna

M LARRAMENDI

Egoitza Nagusia

[Handwritten signature]

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Elkarteen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

79. artikulua.- Bazkuna deseginez gero, erabakia hartu duen Biltzar Nagusiak Kitapen-Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritzako bost batzordekidek osatuko dute eta dauden dirubildu eta ondasunez arduratuko da.

Batzorde horren egiteko nagusia, Kultur Bazkuna desegitean geratu den ondarearen kitapena prestatzea izango da, eta kitapen hori burutzea.

80. artikulua.- Bazkideekiko eta besterekiko Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren zorrak ordaindu ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, honako hauei emango zaie:

- Euskararen erabilera suspertu, zabaldu eta biziberritzeko eta euskal kultura indartu eta aberasteko Kultur Bazkunak berea zuen jardun-eremuan, era ageriko eta nabarmenki eraginkorrean lanean dihaduten beste bazkun edo erakundeei, irabazi asmorik gabeko eta herri onurako baldin badira.

&&&&&&&&

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Biltzar Nagusiak barne-araudiak onartu ahal izango ditu. Horiek inolaz ere ez dituzte Estatutuetakoko aginduak aldatuko.

Onarturiko Arautegi horiek guztiek Eusko Jaurlaritzako Elkarten Erregistroari aurkeztu beharko zaizkio, idazpeturik jaso ditzan Bazkunaren Estatutuekin batera, jendaurreko informazioaren eta agintaritzari dagozkion gainerako ondorioetarako.

Amasa-Villabona, 2013, ekainak 20.



AS/6/3636/1992
Estatutu hauek ikus-onesi dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Errolda Nagusiaran Erregulamendua onartzen duen uztailaren 29ko 145/2006 Dekretuan eta horrekin bat datozen gainontzeko arauetan zehaztutako ondorioetarako.
2014 IRA 15
15 SEP 2014

Visados los presentes Estatutos, a los efectos determinados en el Decreto 145/2006, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro General de Asociaciones del País Vasco y demás normativa concordante.
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ELKARTEN ERREGISTROA / REGISTRO DE ASOCIACIONES
HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Elkarteen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones